

Startinnova VI - Bezeroekiko harremanak

Bezeroa gure enpresaren erdigunea da, bere beharren arabera lan egiten dugu eta antolatzen gara.

Bezeroekin izango dugun harremanetako bat laguntza pertsonala izango da, hau da, bezeroaren egonaldia ez eteteko beharrezkoa den erlazioa izango dugu, adeitasunez hartuz, eta kontsumitzaileari behar duen arreta guztia eskainiz.

Gainera, bezeroekin dugun harremana ere oso aktiboa izango da sare sozialetan, esaterako Instagramen eta Twitterren oso kontuan izango baitugu gure irudia. Adibidez, noizean behin zozketa bat egingo dugu sare sozialetan, non gure bezeroetako batek sariren bat jaso ahal izango duen, hala nola bi gosari.

Bestalde, leialtze-txartelak izango ditugu, eta bezeroak 10 kafe kontsumitzen dituenean, kafe bat oparituko zaio.

Era berean, jaiegunetan eskaintza bereziak izango ditugu; Amaren, Aitaren edo Gabon egunean, esaterako. Bertan, jaiaren gaia duten produktuak eskaintzeaz gain (adibidez, Eguberri egunean, turroia, polboroiak eta bestelakoak salduko ditugu), ekitaldiaren arabera apainduko dugu establezimendua.

Bukatzeko, norbait ez badago pozik enpresak emandako tratuarekin edo eskaintako produktuekin, erreklamazio-orriak ditugu; etorkizunean akats berberak ez egiteko eta enpresa hobetu ahal izateko. Orri hauek web orrian eta establezimenduan egongo dira eskuragarri.

